

HAUTAKETA PROZESUA 2008KO EPE

DESTINO HAUTAKETA

I. atala: Argibide Orokorrak

1.1.- Destinoa aukeratzeko eskubidea honako hauek bakarrik dute: destinoaz jabetzeko aukera duten puntuazioaren arabera izangaien zerrendaren I. eranskinean ageri diren oposiziogileek bakarrik.

Hautaketa hori izangaien zerrendak 2008ko EPEko Web-ean (<http://ope2008.osakidetza.net>) argitaratu ahala egingo da, eta gradualki kategoriaka egin ere. Eta barne-sustapeneko txandarik izanez gero, txanda irekikoak baino lehenago ebatzi ahalko dira.

1.3.- Destinoak aukeratzeko 15 egun baliioduneko epea dago, izangaien zerrenda Osakidetzako Web-ean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita.

1.4.- Destino-aukeraketa posta elektronikoz egingo da, Osakidetzako 2008ko EPEko hautaketa-prozesuko web-ean sartuta.

1.5.- Ez da paperean edo aurreko atalean aipatutako euskarria ez den beste euskarri edo baliabideren batean egindako destinorik onartuko.

1.6.- Destino-aukeraketa egiteko, Osakidetzako web-ean identifikatu behar zara (<http://ope2008.osakidetza.net/aOPE2008/cas/Login/cpX.jsp>). Zure NANA eta parte hartzeko eskabidean adierazi zenuen sarbide-pasahitza tekletuz.


1.7.- Pasahitza gogoratzen ez baduzu, web-ean bertan baduzu aukera bat inskripzioa egin zenuenean eman zenuen posta elektronikora bidal diezazuten eskatzeko. Edonola ere, sartu ezin bazara, erakundera deitu behar duzu 945006150 telefonora. Bertan, pasahitz hori nola berreskuratu adieraziko dizute.

1.8.- Izangaien zerrendan dagoen ebazpena eta oinarri orokorrak eta espezifikoak arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu, bertan aurkituko baituzu behar duzun informazio guztia.

II. atala: Destino-aukeraketa

- 2.1.- Sar zaitetz 2008ko EPEko hautaketa-prozesuko web-era (<http://ope2008.osakidetza.net>)
- 2.2.- Hizkuntza hautatu ondoren, sakatu pantailaren ezker aldeko "kontsulta Pertsonalizatuak" atalean.
- 2.3.- Hautatu NAN edo AIZ, dagokionaren arabera.
- 2.4.- Tekleatu zure NAN zenbakia –zeina hautaketa-prozesuan parte hartzeko eman zenuena bera izan behar baita-, aukeratu dagokion letra eta sakatu "Bidali" atalean.
- 2.5.- Sarbideko kontrol-sistemak zure pasahitza eskatuko dizu. Gogoratzeko ez baduzu, pantailaren ezker aldean behealdean baduzu atal bat parte hartzeko eskabidean eman zenuen e-mailera pasahitza bidaltzeko aukera emango dizuna.
- 2.6.- Identifikatu ondoren, eta kategoria batean baino gehiagotan parte hartu baduzu, destinoaz jabetzeko aukera duzuneko izangaiarena aukeratu behar duzu destinoa aukeratzeko.
- 2.7.- Aurreko atalean aipatutako izaera lortu baduzu, kontsulta pertsonalizatuaren menuan atal gehigarri bat izango duzu. Menu horretako azken aukera "Destino-aukeraketa" izango da, eta bigarren aukeran "Eskabidea / Aldatu" adieraziko du.

Non: Hasiera > Norberari egokitutako kontsultak > Kategoria aukeratu > Menua Kontsulta pertsonalizatuak



EPE 2008

- >> Informazio orokorra
- >> Oinarri orokorrak
- >> Eskaintzen diren destinoak
- >> Eskabidea
- >> Hautatze-prozesua

Kontsulta pertsonalizatuak

- >> Egutegia
- >> **Kontsulta pertsonalizatuak**

W3C WAI-A WCAG 1.0

EPE 2008 Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua

Menua Kontsulta pertsonalizatuak

Eskabidea:

- Kontsulta
- Berrinprimaketaren frogagiria

Prozesuaren garapena:

- Ikusi

Destinoak aukeratu:

- Eskabidea / Aldatu

2.8.- Destinoak eskatzea:

2.8.1.- Destino-aukeraketari ekiteko, sakatu bigarren aukera "Eskabidea". "Destino-aukeraketa" aukeraren barruan dago.

2.8.2.- "Eskainitako zentroak" atalean kategorian eskaintzen diren destino guztien zerrenda ageri da, honela zehaztuta:

- lanpostu funtzionala, kategorian bat baino gehiago daudenean.
- zerbitzu-erakundea eta/edo zentroa
- destinoen kopuru osoa
- derrigortasun-datadun hizkuntza-eskakizuna duten destinoen kopurua
- hala badagokio, lanaldia

Esaterako:

Bidasoako Ospitalea-3 destino batzuk- 1 2.HEko-09/06/01. Horrek esan nahi du Bidasoako Ospitalean 3 destino eskaintzen direla, horietako batek 2. hizkuntza-eskakizuneko derrigortasun-data duela (2009ko ekainaren 1a).

Eskainitako zentroak aukeratzea / Selección de centros ofertados

Eskainitako zentroak aukeratzea / Centros ofertados

bidasoako ospitalea-3 destino batzuk-1 2HEko-09/06/01
deba garaiko ospitalea-2 destino batzuk-2 2HEko-08/11/03
donostia ospitalea-4 destino batzuk
galdakao-usansoloko ospitalea-2 destino batzuk
gurutzetako ospitalea-1 destino
mendaroko ospitalea-3 destino batzuk
txagorritxu ospitalea-1 destino
zumarragako ospitalea-4 destino batzuk-1 2HEko-08/11/03



Aukeratutako zentroak / Centros seleccionados

2.8.3.- Zuk zentroetan eskaintzen diren destino guztiak aukera ditzakezu. Derrigortasun-data igarota duten hizkuntza-eskakizuneko destinoak baldintza betetzen dutenei bakarrik esleitu ahal zaizkie. Era berean, lanpostu funtzional jakin bat zehazten denean, deialdiko oinarrietan eskatzen den titulazioa egiaztatzen dutenei bakarrik esleitu ahalgo zaizkie.

2.8.4.- "Hautatutako zentroak" atalean, zeuk aukeratutako destinoen zerrenda agertuko da, hautaketaren lehenetsunaren arabera sailkatuta (1 lehenengo aukerarako, 2 bigarren aukerarako, etab.).

2.8.5.- Destino bat aukeratzeko, sakatu nahi duzun destinoaren gainean zentroetan eskaintzen direnen artean, eta sakatu dagokion botoiaren gainean (ikusi irudian gorritz markatutakoa) aukeratutako destinoen zerrendara pasatzeko.

2.8.6.- Nahi diren destinoak hautatutakoan, "Zinpean edo promes eginez adierazten dut" laukitxoan sakatu, eta ondoren –oso garrantzitsua da- sakatu "Baieztatzea".

Eskainitako zentroak aukeratzea / Selección de centros ofertados

Eskainitako zentroak aukeratzea / Centros ofertados

galdakao-usansoloko ospitalea-2 destino batzuk
gurutzetako ospitalea-1 destinu
txagorritxu ospitalea-1 destinu



Aukeratutako zentroak / Centros seleccionados

1.- bidasoako ospitalea-3 destino batzuk-1 2HEko-09/06/01
2.- donostia ospitalea-4 destino batzuk
3.- mendaroko ospitalea-3 destino batzuk
4.- zumarragako ospitalea-4 destino batzuk-1 2HEko-08/11/03
5.- deba garaiko ospitalea-2 destino batzuk-2 2HEko-08/11/03



Pertsona sinatzaileak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari eskatzen dio destino-hautaketa hau onar diezaiola, Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren 14.1 oinarriaren arabera. Era berean, sinatzaileak, bere ardurapean, aitortzen du deialdian bereziki adierazitako baldintzak betetzen dituela, destino-hautaketa hauek egiteko, eta eskabidean adierazten diren datuak dokumentu bidez probatzeko konpromisoa hartzen du, hala eskatzen bazaio.

ZINPEAN EDO PROMES EGINEZ ADIERAZTEN DUT

Eskabide honetan eskatutako datuak betetzean, berariaz adierazten dut Osakidetzak baimen osoa duela datu horiek Osakidetzako Pertsonaleko Hautaketa eta Horniketa izeneko Datu-Basean sartzeko eta ondoren tratatzeko. Baimen horren baitan sartzen da datu horiek erabiltzeko aukera, partehartzea eskatzen den lehiaketa-prozesuaren garapenerako. Sartzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta oposizioa egiteko eskabideak fitxategiaren arduradunarekin erabili ahalgo dira: OSAKIDETZA-Euskal osasun zerbitzua, Araba kalea, 45, 01006 Vitoria-Gasteiz.

Baieztatzea / Confirmar

2.8.7.- Zure nabigatzaileak "Javascript" aktibatuta badu, pantailan honelako abisua jasoko duzu:


Destinoak aukeratzea
Elección de destinos

Kategoria - Espezialitatea / Categoría - Especialidad

Kategoria - Lanpostu funtzionalaren kodea / Código categoría - puesto funcional
A10234

Kategoria - Lanpostu funtzionalaren izena / Nombre categoría - puesto funcional
FAK. ESP. ETXEKO OSPITALIZAZIORAKO MEDIKUA

Norberaren datuak / Datos Personales



2.8.8.- Hor bertan, botoi bat izango duzu destino-aukeraketaren eskabidearen kopia bat inprimatzen utziko dizuna.

Eskaintako zentroak aukeratzea / Selección de centros ofertados

Aukeratutako zentroak / Centros seleccionados

- 1.- bidasoako ospitalea-3 destino batzuk-1 2HEko-09/06/01
- 2.- donostia ospitalea-4 destino batzuk
- 3.- mendaroko ospitalea-3 destino batzuk
- 4.- zumarragako ospitalea-4 destino batzuk-1 2HEko-08/11/03
- 5.- deba garaiko ospitalea-2 destino batzuk-2 2HEko-08/11/03

Pertsona sinatzaileak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari eskatzen dio destino-hautaketa hau onar diezaiola, Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren 14.1 oinarriaren arabera. Era berean, sinatzaileak, bere ardurapean, aitortzen du deialdian bereziki adierazitako baldintzak betetzen dituela, destino-hautaketa hauek egiteko, eta eskabidean adierazten diren datuak dokumentu bidez probatzeko konpromisoa hartzen du, hala eskatzen bazaio.

x ZINPEAN EDO PROMES EGINEZ ADIERAZTEN DUT

Eskabide honetan eskatutako datuak betetzean, berariaz adierazten dut Osakidetzak baimen osoa duela datu horiek Osakidetzako Pertsonaleko Hautaketa eta Horniketa izeneko Datu-Basean sartzeko eta ondoren tratatzeko. Baimen horren baitan sartzen da datu horiek erabiltzeko aukera, partehartzea eskatzen den lehiaketa-prozesuaren garapenerako. Sartzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta oposizioa egiteko eskubideak fitxategiaren arduradunarekin erabili ahalko dira: OSAKIDETZA-Euskal osasun zerbitzua, Araba kalea, 45, 01006 Vitoria-Gasteiz.

Erregistratze-data / Fecha de registro: 2010/04/20

frogagiria inprimatu

2,9.- Destinoak aldatzea:

2.9.1.- Behin destinoak eskatuta, baduzu aldatzerik epe barruan. Kontuan izan zuk egindako azken aldaketa izango dela destino-aukeraketa baliagarria. Destinoak aukeratzeko epea amaituta, kontsulta aukera bakarrik egongo da gaiturik.

2.9.2.- Destinoen eskabidea egin zenuenean bezala, berdin-berdin sar zaitez. Destinoen eskabide-alta zuzen egin bazenuen, hurrengo pantaila hau agertuko zaizu aukera hauekin:



Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Enplegu Publikoko
Eskaintzen gaineko Informazio orokorra eta pertsonalizatua

Menua Kontsulta pertsonalizatuak

Eskabidea:

Kontsulta

Berrinprimaketaren frogagiria

Prozesuaren garapena:

Ikusi

Destinoak aukeratu:

Eskabidea / Aldatu

Kontsulta

Destino guztiak baliogabetu

2.9.3.- Sakatu "Eskabidea / Aldatu" atalaren gainean.

2.9.4.- Pantailan une horretara arte egindako destino-aukeraketa agertuko da.

2.9.5.- Hala nahi izanez gero, "Hautatutako zentroak" ataleko zerrendan destinoak gehitu edo kendu ahal dituzu edo baita berriro ere sailkatu zuk nahi duzun lehentasunaren arabera.

2.9.6.- Amaitzen duzunean, "Zinpean edo promes eginez adierazten dut" laukitxoan sakatu behar duzu, eta ondoren "Baieztatu" sakatu.

2.9.7.- Zure nabigatzailean "javascript" aukera aktibatuta baduzu, informazio-abisu bat agertuko zaizu ariketa arrakastaz egin dela adieraziz.

2.10.- Destinoen kontsulta:

2.10.1.-“ Kontsulta” aukera beti eskura egongo da, destinoak aukeratzeko epean nahiz epez kanpo.

2.10.2.- Destinoen eskabidea egin zenuenean bezala, berdin-berdin sar zaitez. Destinoen eskabide-alta zuzen egin bazenuen, “kontsulta” aukera izango duzu. Sakatu bertan pantailan ikusteko, eta nahi izanez gero, egiaztagiri bat inprimatu ahal duzu.

2.11 Destino guztiak ezabatzea:

2.11.1.- Destinoak aukeratzeko epean, aukeratutako destino guztiak ezabatzeko aukera izango duzu.

2.11.2.- Horretarako, baduzu aukera bat kontsulta pertsonalizatuen menuan.

2.11.3.- Ezabaketa ez da eraginkorra izango harik eta sistemak eskatuta birritan baieztatu arte.

2.11.4.- GARRANTZITSUA: destino-aukeraketa ezeztatzen baduzu, ziurtatu beste aukeraketa berri bat egiten duzula. Bestela, destino-aukeraketa egin gabe epea igarotzen bada hautaketa-probetan parte hartzeko eskubideak galduko dituzu.